Mungia Udala

# MUNGIARRA

www.mungia.eus

## Ingurumena

Emisinoak nahitaez murrizteko, baita beroketa globalaren ondorioetara egokitzeko bere funtsezko eginbeharra dogu prestakuntzan, heziketan eta informazinoan

## Nortasuna

EUSKARALDIA: euskera gehiago, gehiagotan, gehiagogaz, zemendiaren 20tik abenduaren 4ra

## Herritarren parte-hartzea

Aurrekontu Partehartzaileen bidez, lagundu egiguzu 2021erako lehentasunak eta beharrak definitzen








Baietz ein!

66
Noviembre 2020ko azaroa

# Kaixo, mungiarra:



Ager Izagirre, Mungiako alkatea

Zein nahasia dan bizi dogun egunerokoa. Norberaren eta etxekoen osasunak kezkatzen gaitu gehien bat. Horregaitik, gaixotasunak jo zaituen eta horren eraginez sufritzen zagozen mungiarrei nire besarkadarik handiena eskaini gura deutsuet.

Osasuna da gure ardurarik handiena, eta, aldi berean, larrialdi honek dakarzan eragin sozio-ekonomiko guztiak.

Danok daukagu adaptatu beharra, Udalak bere bai.

Zerbitzu publiko guztiei eusteko ahalegina egiten gabiltz, osasun-neurriei egokituta; lehentasuna txartoen dagozanei emoten, behar daben etxeko gauzetarako eta elikagaien bankuaren bidez laguntza eskainita.

Euren beharra galdu dabenei barria topetan laguntzen, edo gure herriko merkatari eta ostalariei, ahal dan neurrian, erraztasunak emoten eta herritarrek berton kontsumitu daien indar egiten.











Baina hau bere egia da, pandemia honek ezin dauz beste beharrizan batzuk alde batera itxi; kasurako, euskerearen erabilerea, hortxe daukagu Euskaraldia, larrialdi klimatikoa eta herritarren partehartzea Udal aurrekontuetan.

Horri guztiorri aurre egiteko, badakigu diru gitxiago eukiko doguna, baina lehentasunak argi daukaguz; hau da, zerbitzuak mantendu, gure herriko aktibidade ekonomikoari eusten lagundu eta, batez bere, txartoen dagozanei danon alkartasuna eskaini.

Beraz, egokitzeko jarrera positiboa behar dogu eta bakotxak egin daiela ahal dauan guztia egoera honetatik ahalik eta arinen urteteko.

Besarkada bat

*Ager Izagirre, Mungiako alkatea*

## Kaixo, mungiarra:

Antes de nada, mi abrazo más sentido a todas y todos los mungiarras que, de alguna manera, estáis sufriendo las consecuencias de esta enfermedad.

Desde el Ayuntamiento estamos haciendo un gran esfuerzo en mantener y garantizar todos los servicios públicos, adaptándonos en todo momento a las medidas sanitarias marcadas por la pandemia. Nuestra máxima prioridad es preservar la salud y el bienestar de todas las y los mungiarras: priorizando las ayudas a personas y familias que peor lo están pasando; facilitando la búsqueda de un nuevo empleo a quienes han perdido su trabajo y reactivando la economía local, fomentando el consumo en el sector del comercio y hostelería del municipio.

Sin olvidar en ningún momento la importancia que tienen aspectos tan importantes como la emergencia climática, la utilización del euskera o la participación ciudadana en la elaboración de los presupuestos.

Un abrazo

*Ager Izagirre, alcalde de Mungia*

# MUNGIA INDARTZEN
## Pandemia sasoian bere, gure ardurarik handiena: herritarrak

En esta situación de crisis sanitaria, tanto desde el Ayuntamiento como desde la Mancomunidad Mungialde de Servicios Sociales hemos habilitado servicios y recursos para responder a las necesidades de la ciudadanía. Seguimos trabajando en la limpieza y desinfección diaria de nuestras calles, y hemos mantenido los recursos y servicios de la Mancomunidad Mungialde. Con la ayuda de personas voluntarias se ha reforzado y ampliado la distribución de alimentos; la buena coordinación con Cruz Roja, así como con el voluntariado de Protección Civil, ha sido decisiva.






Gure herriko kaleak egunero garbitu eta desinfektatzeko lanean gabilz

Bizi dogun osasun krisiko egoera honetan, herritarren beharrizanei erantzun bat emoteko asmoz, Udalaren eta Gizarte Zerbitzuen Mungialde Mankomunitateko zerbitzu eta baliabideak jarri doguz martxan.

### GURE HERRIKO KALEAK EGUNERO GARBITU ETA DESINFEKTATZEKO LANEAN GABILZ

Covid-19 gure artean zabaldu zanetik, egunero gabiltza, goizeko lehenbiziko ordutik, Mungiako kaleak eta guneak garbitzen eta desinfektatzen. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren gomendioei jarraituta, Covid-19aren hedapenari aurre egiteko lanean jarraituten dogu. Herria garbi eukitea da gure lehentasuna. Era berean, kaleko ekipamenduak eta udal instalazinoak zabaltzen joan garen heinean, garbiketa lan-sakona egin dogu: umeen jolaslekuak, iturriak, bankuak, barbakoa-lekuak, kirol instalazinoak, Nagusien Txokoa, etab.

### MUNGIALDE MANKOMUNITATEKO ZERBITZU ETA BALIABIDEEI EUTSI EGIN JAKE

Zerbitzu eta baliabide guztiei eutsi jake larrialdi egoeran, beti bere egoera berezi honetara egokituta. Gizarte zerbitzuen erabiltzaile diran herritar eta familiei jarraipena egin jake euren egoeraren barri izateko eta, ahal dan neurrian, laguntza eskaintzeko.

### ELIKAGAIEN BANAKETA INDARTU ETA ZABALDU EGIN DAU MANKOMUNITATEAK

Boluntario taldearen laguntzaz, Gizarte Zerbitzuen Mungialde Mankomunitateak antolatzen



dauan elikagaien banaketa indartu eta zabaldu egin da. Normalean banatzen diran janarien ganera, elikagai freskoak bere erosi eta banandu dira herritarren artean. Izan bere, lehendik egoera latzean egozan familia askoren egoereak okerrera egin dau eta ikastetxeetako jantoki zerbitzua eteteak berebiziko kaltea eragin deutse.

### HARTU-EMONA ELIKAGAIEN BANAKETAN LANEAN IBILI DIRAN BOLONDRESEN TALDEAKAZ, BABES ZIBILAGAZ ETA GURUTZE GORRIAGAZ




Gure baliabideak euren esku ixteko, ezinbestekoa izan da aitatutako taldeakazko hartu-emona izatea (materiala, lokalak, udal brigada edo beste zerbitzu batzuen laguntza emoteko). Danon arteko koordinazinoagaz, sortu diran beharrizanei erantzuna emon jake.

### HERRIKO BERRAKTIBAZINO EKONOMIKOARI ETA OSTALARITZARI BULTZADA EMOTEA

Alarma egoerearen deseskalatze-fasean, ostalaritza-terrazen egoerea



berraztertu eta berregokitu dogu, horreen espazioa zabalagoa egin ahal izateko.

### GARBIKETA ETA HIGIENE PERTSONALERAKO PRODUKTUEN EROSKETA ETA BANAKETA

Larrialdi egoera honetan etxeko garbiketak eta norberaren higieneak daukan garrantzia kontuan izanik, Udalak produktu ezbardinak erosi (lixiba, komuneko papera, erropak garbitzeko detergentea, platerak garbitzeko xaboia, haginetako-pastea, dutxarako xaboia eta maskarak) eta, bolondresen laguntzagaz, material hori banatu egin eban egoera ekonomiko larrienean dagozan familien artean.

### ZIRKUKO FAMILIEI LAGUNTZEA

Osasun-larrialdiko egoerearen ondorioz, denboraldi batez Mungian lotu behar izan eben zirku bateko zazpi familiei bere (zirkuko langileak) laguntza emon jaken.

### TELEFONO DEIAK BAKARRIK BIZI DIRAN 65 URTETIK GORAKO PERTSONEI

Konfinamendua hasi zanean, Udalak telefono deiak egin eutsezan bakarrik bizi diran 65 urtetik gorako pertsonei. Guztira, 1.200 pertsona/familiari deitu jake. Beharrezkoa ikusi dan kasuetan, dei horreek kasu batzuetan errepikatu dira.

Horretara, herritarren batek edozein eratako laguntza-premiarik izan eikean detektatu gura izan zan (erosketak egitea, botikak lortzea, zaborra jaistea, etab.).

Se han repartido entre la ciudadanía productos para la higiene personal y para mantener la casa aseada (lejía, papel de baño, detergente para la ropa, lavavajillas, pasta de dientes, jabón de ducha y mascarillas). Se ha realizado un seguimiento mediante llamadas a personas mayores de 65 años que viven solas, detectando así las necesidades que pudiesen tener. En coordinación con la Cruz Roja, hemos llegado a los hogares de esas personas, que, por  diversas razones, no podían salir para adquirir alimentos o medicamentos.

Ganera, Udalaren aldetik hurbiltasuna, interesa eta animoa erakutsi eta eskaini gura izan jake, zorigogorreko egoera horretan babes handiagoa sentidu deien. Premiaren bat igarri dan kasuetan, laguntza psikologikoko zerbitzura bideratu da (gizarte langileak, laguntza psiskologikoko zerbitzua, aholkularitza juridikoa, bitartekaritza, etab.) eta aldizkako jarraipena egin jake, egoerea zelan doan ikusteko.

## HERRITARREI EROSKETAK EGIN ETA ETXERA EROAN

Edadeagaitik edo beste arrazoi batzukaitik (leku isolatuetan bizi diralako, arrisku-taldeetakoak edo Covid-ean positivo diralako…) erosketak edo medikamentuak erosten joateko erarik izan ez daben herritarrei erosketak egin eta etxera eroan jakez (jatekoak, botikak), Gurutze Gorriko boluntarioen laguntzagaz.

## EDADEKOEN EGOITZAKAZKO KOORDINAZINOA

Herriko edadekoen egoitzakaz dagoan hartu-emona eta koordinazinoa etenbakoa da, euren egoera eta beharrizenen barri izateko.

## INDARKERIAREN BIKTIMA DIRAN EMAKUMEEI JARRAIPENA EGITEA

Gizarte Zerbitzuetatik jarraipena egin jake indarkeriaren biktima diran emakumeei. Horri lotuta, herriko farmaziakaz batera, Maskara 19 programa bideratu da.

## HERRIKO IKASTETXE ETA ALKARTEAKAZKO ALKARLANARI EUSTEA

Herriko ikastetxeakazko alkarlanari eutsi egin jako, euren beharrizanei erantzuteko. Ekintza desbardinak bideratzen lagundu jake, etxean egon diran ikasleei materiala helarazoteko.

Gizarte Ekintza alorrean lan egiten daben herriko alkarteakaz bere hartu-emona egon da.

## BITARTEKARITZA ZERBITZUAGAZ AURRERA EGITEA

Egoera berezi honetan sortu diran auzokoen eta familien arteko gora-behera edo txarto ulertuak konpontzen saiatzeko zerbitzu hau eskaintzen jarraitu dogu.

## ETXEGABETZE EGOERETARAKO AHOLKULARITZA JURIDIKOAREN ZERBITZUA EGOKITZEA

Hile honeetan herritarren beste era bateko zalantzak argitzeko zerbitzua egokitu da: aldi baterako enplegu-erregulazinoko espedienteak, egoera honetan hartu beharreko neurriak, eta abar.

## GAZTEEN LONJETAN ESKU HARTZEKO ZERBITZUA

Gazteen lonjak pandemiaren ondorioz zarratuta dagozanez, lokal horreetan batzen diran gazteakaz esku hartzeko programa egokitu egin da egoera barrira. Holan, gazteekazko hartu-emona eta esku hartze-lana lonjetan barik kale eremuan egiten ari da. Ganera, konfinamendu garaian egoera berezian (arazo psikologikoak…) dagozan gazte batzukaz bere lan egin eben.

## ESKERRAK

Eskerrak emon gura deutseguz era desbardinetan euren laguntza eta dohaitzak emon dabezan bolondresei eta enpresa, erakunde, alkarte eta herritar guztiei.







Se han mantenido todos los servicios en el ámbito social, adaptándolos a la situación y necesidades derivadas de la pandemia (servicio de mediación, asesoramiento jurídico, servicio de intervención en lonjas juveniles…). La coordinación con las residencias de personas mayores es constante.

# Aprobado el IV Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres

El Plan salió adelante por unanimidad en el Pleno de junio, después de presentarlo en la Comisión de Asuntos de Ciudadanía.

Han sido dos años de intenso trabajo, en el que han participado personal especializado, técnico, político y ciudadanía. El documento acordado recoge 45 objetivos a desarrollar estos próximos 5 años.

Se ha aprobado también el Plan Operativo que establece los objetivos y actividades a poner en marcha este ejercicio, tan especial, debido a la Covid-19.

Joan dan bagileko Osoko Bilkuran aho batez onartu zan Emakumeen eta Gizonen Bardintasunerako IV. Plana. Horren ganera, helburuak eta jarduerak ezartzen dauzan Plan Operatiboa bere onartu da.

## Cine repleto de igualdad, diversidad y compromiso social

Urriaren 16an, 17an eta 18an Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdiaz gozatzeko aukera izan dogu. Hiru egunetan 17 pelikula proiektatu dira, bertaratutakoen gozamenerako.

Los días 16, 17 y 18 de octubre las vecinas y vecinos del municipio tuvimos la oportunidad de disfrutar del Festival Internacional de Cine Invisible-Film Sozialak 2020 en Torrebillela Kultur Etxea.

El festival, que este año cumple su 12ª edición, tiene cuatro ejes temáticos: desarrollo sostenible, equidad de género, interculturalidad y derechos humanos. Hemos podido deleitarnos con la proyección de 17 películas durante tres días.

## Jarduera programa zabala ikastetxeetan

Desde diferentes departamentos y servicios del ayuntamiento, la Mancomunidad de Servicios Sociales y Mungialdeko Behargintza, se va a seguir ofreciendo una amplia y variada gama de actividades en todos los centros escolares de Mungia.

Urtero legez, Udalak, Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak eta Mungialdeko Behargintzak, euren sail eta zerbitzuen bitartez (Gizarte Ekintza eta Adikzinoen Prebentzinorako zerbitzua, Euskara Saila, Eskola Agenda 21) jarduera programa zabala eskaintzen jarraituko dabe Mungiako ikastetxe guztietan.

COVID 19aren ondorioz bizi dogun egoera dala-eta, jarduera programa barriro konfiguratu behar izan dogu. Horretarako hainbat formula erabili izan doguz tailerrak, online jarduerak eta ekintzak eremu irekietan egin ahal izateko.

## Jagoten programa, mendekotasuna daukien pertsonei eta hareen jagoleei zuzenduta

Mendekotasuna daukien pertsonen autonomia sustatzeko eta hareen jagoleei laguntza psikosoziala emoteko JAGOTEN programeak hainbat jarduera jarri dauz martxan. Horreen artean, etxetik egiteko psikoestimulazino tailerra, bizkarra lantzeko tailerra; eta jagoleei zuzenduta, autolaguntza taldea eta pandemiaren ondorio psikologikoak kudeatzeko estrategien ikastaroa.

Psikoestimulazino ariketak posta elektronikoz edo Whatsapp bidez bidaliko dira eta bizkarra lantzeko tailerreko saioak, barriz, bideo bitartez bidaliko jakez parte-hartzaileei.

Informazino gehiago jasoteko: 94.404.77.07

El programa para el fomento de la autonomía de la persona dependiente y de apoyo psicosocial a sus cuidadoras y cuidadores, ha impulsado varios talleres como el de psicoestimulación y el de espalda.

Para recibir más información: 94.404.77.07

# MUNGIA INDARTZEN
# Paquete de ayudas para la ciudadanía

La declaración de estado de alarma sanitaria y, por consecuencia, el cese de actividad de los negocios no esenciales, han hecho que se vea seriamente afectada la economía de muchas vecinas y vecinos del municipio. Para hacer frente a esta situación, desde el Ayuntamiento de Mungia pusimos en marcha el plan Mungia Indartzen, un programa de ayudas al que se han destinado 470.000€.




## BONOS DE CONSUMO

Por otro lado, hemos impulsado una campaña de bonos de consumo que ha contado con una inversión de 160.000€, con el objetivo de ayudar a las familias mungiarras y de reactivar el consumo en los establecimientos de nuestro municipio. Campaña que dio comienzo el 20 de junio y se prolongó hasta el 19 de julio.

Así, se repartió en todos los domicilios un pack de bonos valorado en 20€.

## ORIENTACIÓN Y FORMACIÓN PARA REACTIVAR EL EMPLEO

El Ayuntamiento y Mungialdeko Behargintza continuamos trabajando e impulsando medidas para reactivar la contratación y el empleo local especialmente dañado por la crisis sanitaria. A través de "Mungia Indartzen" se pretende reincorporar al mundo laboral a personas que han quedado en situación de desempleo. Esto se llevará a cabo a través de la reorientación laboral, la recolocación y la formación.

Junto con el plan de empleo, al que se han destinado 200.870,46€, el Consistorio ha invertido un total de 830.870,46€.



Mungialdeko Behargintza_Contacta con nosotr@s en Gamiz Bidea 32 o llamando al teléfono 94.615.62.44

Mungia Indartzen laguntza-programaren bitartez, Udalean 470.000€ bideratu doguz, herritarrei, familiei, bertoko merkataritza eta ostalaritzari, autonomoei eta mikroenpresei laguntzak emoteko. Horren ganera, beste 200.870,46€ inbertidu doguz langabezia egoeran dagozan Mungiako 11 bizilagun kontratatzeko. Kontsumo-bonoen kanpainea bere jarri abian jarri dogu, herriko familiei laguntzeko eta bertoko establezimenduen kontsumoa suspertzeko. Kanpainea bagilaren 20an hasi eta garagarrilaren 19ra arte luzatu zan. Horretarako 160.000€ bideratu doguz.

Beste alde batetik, Mungialdeko Behargintzagaz batera alkarlanean ibili gara, osasun-krisi honek kaltetu dauan kontratazinoa eta bertoko enplegua berpizteko neurriak hartzeko. Eskualdeko Enplegu Planagaz batera, guztira, 830.870,46€. inbertidu doguz.

Mungialdeko Behargintza · Bizkaia foru aldundia diputación foral · Mungia Indartzen · Mungia Udala

## LANGABEZIA EDO ENPLEGUA HOBETZEKO EGOERAN DAGOZAN PERTSONETZAT
## PARA PERSONAS QUE ESTÁN EN SITUACIÓN DE DESEMPLEO O EN MEJORA DE EMPLEO

**3 R Programea**

Berrorientatzeko, barriro lan merkatuan sartzeko eta birgaitzeko programea.

**Hartzaileak:**
COVID-19ak eragindako krisiaren ondorioz lan barik lotu diran pertsonak
(2020/03/14tik aurrera)

**Edukiak**:
1. Berorientazioa
2. Barriro lan merkatuan sartzea
3. Gaitasun digitalen arloan birgaitzea

**Lekua:** Mungialdeko Behargintza

**Programa 3 R**

Programa que incluye Reorientación, Recolocación y Recualificación

**Dirigido a:**
Personas que han quedado en situación de desempleo originado por la crisis de la COVID-19
(a partir del 14/03/2020)

**Contenidos:**
1. Reorientación
2. Recolocación
3. Recualificación en competencias digitales

**Lugar:** Mungialdeko Behargintza

**3 R Programea- Gaitasun digitalak**

**Hartzaileak:**
COVID-19ak eragindako krisiaren ondorioz lan barik lotu diran pertsonak
(2020/03/14tik aurrera)

**10 orduko ikastaroak:**

| | |
|---|---|
| 2020/10/26-2020/10/28 | Oinarrizko Word |
| 2020/11/26-2020/11/30 | Helbide elektronikoa |
| 2020/12/14-2020/12/16 | Google Drive |
| 2021/01/27-2021/01/29 | Sinadura digitala |
| 2021/02/17-2021/02/19 | Oinarrizko Word |
| 2021/03/02-2021/03/04 | Helbide elektronikoa |

**Lekua:** Mungialdeko Behargintza

**Programa 3 R- Competencias digitales**

**Dirigido a:**
Personas que han quedado en situación de desempleo originado por la crisis de la COVID-19
(a partir del 14/03/2020)

**Cursos de 10 horas:**

| | |
|---|---|
| 26/10/2020-28/10/2020 | Word básico |
| 26/11/2020-30/11/2020 | Correo electrónico |
| 14/12/2020-16/12/2020 | Google Drive |
| 27/01/2021-29/01/2021 | Firma digital |
| 17/02/2021-19/02/2021 | Word básico |
| 02/03/2021-04/03/2021 | Correo electrónico |

**Lugar:** Mungialdeko Behargintza

**Informazino guztia: / Toda la información en:**

Mungialdeko Behargintza

Gamiz bidea 32

94 615 62 44 • www.mungialdeko-behargintza.com

HAZILAN

Mungialdeko Behargintzak "HAZILAN" proiektuaren aurtengo bigarren edizinoa martxan ipiniko dau 2020an.

2020ko edizinoko bigarren taldea ABENDUAN hasiko da eta oraindik sasoiz zabiltza parte hartzeko, animatzen?

Langabezian edo lana galtzeko arriskuan dagozan 20-44 urteko herritarrei eta Goi mailako Lanbide Heziketako prestakuntza edo hortik gorakoa daukien pertsonei zuzenduta dagoana. Aktibaturen bidez herritar horrek elkartu egingo dira lana bilatzeko eta, aldi berean, trebetasunak lantzeko. Ondoren praktikak enpresetan garatuko dabez, lanez kanpoko 200 orduko praktikak.

Mungialdeko Behargintza va a comenzar con la segunda edición del presente año del proyecto HAZILAN para el año 2020.

Para la segunda edición del 2020, el grupo comenzará su andadura a partir de DICIEMBRE, ¿te animas?

Destinado a personas de entre 20 a 44 años en situación de desempleo o en riesgo de perder su empleo, con formación igual o superior a Grado Superior, que se unen para cooperar en el camino de búsqueda de empleo y para adquirir competencias. Posteriormente desarrollarán prácticas no laborales en empresas durante 200 horas.

**Informazino guztia: / Toda la información en:**
Mungialdeko Behargintza
Gamiz bidea 32
94 615 62 44 • www.mungialdeko-behargintza.com

# Un plan de empleo conjunto para contratar a 11 personas

Mungialdeko Behargintzagaz alkarlanean, Eskualdeko Enplegu Plana jarri dogu martxan, langabezia egoeran dagozan herriko 11 lagun kontratatzeko. Kontratazino hau 2020 urte bukaeran gauzatuko da.



Junto con Mungialdeko Behargintza, hemos diseñado un proyecto de fomento del empleo en el ámbito local. En plena crisis sanitaria, dentro de nuestras líneas de actuación, continuamos primando el bienestar de las vecinas y vecinos, como es la búsqueda de empleo. A través del Plan de Empleo Comarcal, se contratarán 11 personas en Mungia, iniciativa que ha contado con una inversión de 200.870,46€.

Las contrataciones cuentan con la subvención de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo y tienen como objeto facilitar el acceso al mercado laboral a personas y colectivos con especiales dificultades de inserción.

Se prevé que la realización de dichos contratos laborales se haga a finales de 2020, con una duración de seis meses.

# MUNGIA INDARTZEN
# Apoyando al comercio, hostelería y servicios locales

Desde el 14 de marzo que se declaró el estado de alarma, desde el Ayuntamiento hemos ido tomando y proponiendo una serie de medidas tributarias con el fin de **reactivar y favorecer el sector del comercio, hostelería y servicios locales**:

- Se han **CONCEDIDO AYUDAS ECONÓMICAS EN PRIMERA CONVOCATORIA POR IMPORTE DE:** 600€ destinados a negocios de comercio minorista o de hostelería con establecimiento implantado en Mungia.300€ adicionales, si el comercio o el negocio hostelero dispone de más de una persona trabajadora. 500€ destinados a negocios de servicios con establecimiento implantado en el municipio.
- Se abre una **SEGUNDA CONVOCATORIA DE AYUDAS ECONÓMICAS**: los negocios de comercio y hostelería con más de una persona trabajadora podrán beneficiarse de un total de 1.800€; en el caso de aquellos que tengan una sola persona trabajadora, de 1.200€; y el sector servicios de 1.000€ respectivamente (sumadas las dos convocatorias).
- **BONOS DE CONSUMO 'MUNGIA INDARTZEN'** que se repartieron a todos los domicilios entre junio y julio de 2020.
- **FLEXIBILIZACIÓN DE LA ORDENANZA MUNICIPAL DE LA INSTALACIÓN DE TERRAZAS EN ESPACIOS DE USO PÚBLICO**, priorizando los periodos de respuesta ante las solicitudes de nuevas terrazas o ampliación de las ya existentes.



Nagore Torre alkateordea eta Ager Izagirre alkatea.

- **SE EXCLUIRÁ EL PAGO DE LA TASA DE TERRAZA** desde el 14 de marzo hasta el 21 de junio de 2020, y desde el 7 de noviembre hasta la fecha en que se permita la apertura.
- **MODIFICACIÓN DEL CALENDARIO FISCAL PARA EL EJERCICIO 2020**: la liquidación de la tasa de terraza se realizará del 15 de enero al 15 de febrero de 2021.
- **SE EXCLUIRÁ EL PAGO DE LA TASA DE TOLDOS** desde el 14 de marzo hasta el 21 de junio de 2020 y se procederá a la devolución correspondiente al periodo que que permanezca cerrado desde el 7 de noviembre de 2020 hasta la fecha de apertura.
- En cuanto a la **TASA POR RECOGIDA, TRATAMIENTO Y ELIMINACIÓN DE BASURAS Y RESIDUOS SÓLIDOS URBANOS, SE DEVOLVERÁ LA DIFERENCIA ENTRE LO ABONADO** en el 2° trimestre y la tarifa correspondiente a un local sin actividad comercial.
- Desde el Ayuntamiento se ha puesto en marcha un **SERVICIO DE INTERMEDIACIÓN GRATUITO**, a través del cuál se intentarán facilitar pactos de mútuo acuerdo sobre el pago de alquiler de locales comerciales.
- **NO SE COBRARÁ LA TASA DE TERRAZAS A LAS HOSTELERAS Y HOSTELEROS DURANTE EL 2021.**
- **NO SE COBRARÁ LA TASA DE TOLDOS DURANTE EL 2021.**

# Congelación de todas las tasas e impuestos en 2021

Debido a la situación de emergencia sanitaria por la Covid-19, la economía de muchas personas y familias de Mungia se ha visto seriamente afectada. Siendo conscientes de ello, creemos que no es momento de subir tasas e impuestos.

Se han adoptado las siguientes medidas fiscales de apoyo a las y los mungiarras, en favor de sostener la economía:

- **CONGELAR TODAS LAS TASAS E IMPUESTOS DE 2021**: el Ayuntamiento ha dado el sí a la congelación de todas las tasas e impuestos de 2021 para ayudar a las personas, familias, comercio y hostelería de Mungia en esta complicada situación. La medida fue aprobada, por unanimidad, en el Pleno Municipal del 30 de octubre.
- **MODIFICACIÓN DE LA ORDENANZA FISCAL REGULADORA DEL IMPUESTO SOBRE BIENES INMUEBLES PARA EL 2021**: tendrán derecho a una bonificación del 50% de la cuota íntegra (una sola vez) del impuesto para los bienes inmuebles de categoría “Bien inmueble de uso residencial” en los casos en los que se hayan instalado sistemas para el aprovechamiento térmico o eléctrico de la energía proveniente del sol. La aplicación de esta bonificación estará condicionada a que las instalaciones para producción de calor incluyan colectores que dispongan de la correspondiente homologación por la Administración competente.
- **MODIFICACIÓN DE LA ORDENANZA FISCAL REGULADORA DEL IMPUESTO SOBRE CONSTRUCCIONES, INSTALACIONES Y OBRAS PARA EL 2021**: la medida contempla una bonificación del 50% a favor de las construcciones, instalaciones u obras en las que se incorporen sistemas para el aprovechamiento térmico o eléctrico de la energía solar. La bonificación estará condicionada a que las instalaciones para producción de calor incluyan colectores que dispongan de la correspondiente homologación de la Administración competente.
- **DEVOLUCIÓN DEL ABONO DEL POLIDEPORTIVO MUNICIPAL** de la parte proporcional al periodo de cierre de las instalaciones deportivas.
- **DEVOLUCIÓN UDALKUTXA:** devolución del 20% de la cantidad inicialmente prevista para el 2020.
- Se estima una **MINORIZACIÓN DE INGRESOS DE ENTRE EL 10% Y EL 15%** para el año 2021.



Alarma egoera deklaratu zanetik, Udalean hainbat zerga-neurri hartu doguz udalerriaren egoera ekonomiko latza leuntzeko asmoz. Kasu baterako, 2020 urterako egutegi fiskala aldatu da merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen sektorean, Mungia Indartzen diru-laguntza programa jarri da abian, txartelen programa bere bai eta Covid-19 premiazko zerga-neurriak hartu dira.

2021ean ostalariek ez dabe terrazen tasa ordaindu beharko. Neurri hau aho batez onartu da, Covid-19ak eragindako krisiaren ondorioak hainbeste jasan dituan sektoreari laguntzeko.

**Urriaren 30ean Udalbatzak aho batez onartu dau 2021eko udal tasa eta zerga guztiak izoztea, gure herriko pertsonei eta familiei lagunduteko, baita bertoko merkataritzari eta ostalaritzari bere, bizi dogun egoera gogor honetan.**

Neurri fiskal barriak onartzearen baitan, OHZ-ondasun higiezinen ganeko zergaren kuota osoaren %50eko hobaria aplikatzea aldi baterako, bai eta EIOZ-Eraikuntza, Instalazio eta Obren ganeko zergaren %50ekoa bere, eguzki-energiaren aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak instalatu diran kasuetan, betiere legezko betebeharragatik ez bada.

Udal Kiroldegiko abonua bueltatu da .

2021. urterako diru-sarreren murrizketa % 10-15 bitartekoa izatea aurreikusten da.

Baietz ein!

# En marcha nuevos Presupuestos Participativos

## Aurrekontu Parte-hartzaileen edizino barria martxan

Gure herriaren eguneroko gestinoan, herritarren parte-hartzea, gardentasuna, efizientzia eta eraginkortasuna bultzatzeko helburuagaz, martxan jarri dogu Aurrekontu Parte-hartzaileen edizino barria.

Covid-19ak eragina izango dau udalaren aurrekontuan, hartu behar diran salbuespenezko neurriengaitik eta diru-sarrerak nabarmen gitxituko diralako, hain zuzen bere, osasun-larrialdiak eragin dauan egoera ekonomikoaren eraginez. Hori dala-eta, inoiz baino garrantzitsuagoa da zuon laguntza, 2021erako lehentasunak eta beharrak definitzeko.

Con el propósito de seguir impulsando la participación ciudadana, transparencia, eficiencia y eficacia en la gestión del día a día en nuestro municipio, ya hemos puesto en marcha una nueva edición de los Presupuestos Participativos. La iniciativa ha sido consensuada entre todos los partidos políticos que conformamos la corporación municipal.

Como consecuencia de la emergencia sanitaria marcada por la Covid-19, el presupuesto municipal se verá afectado por las medidas excepcionales que se deben tomar, así como por la drástica reducción de ingresos que va a experimentar el Consistorio. Por eso, **ahora, más que nunca, es importante que nos ayudes a definir las prioridades y necesidades de Mungia para 2021.**

**PLAZO PARA PARTICIPAR: DEL 13 AL 29 DE NOVIEMBRE (AMBOS INCLUSIVE). PRESENCIALMENTE U ONLINE**







Las y los mungiarras podremos presentar propuestas que reúnan los siguientes requisitos:

- Que sean de competencia municipal.
- Que resulten técnicamente y económicamente viables.
- Que justifiquen su sostenibilidad económica y financiera. Coste máximo de las propuestas: 40.000€ (IVA excluido) en caso de obras y 15.000€ (IVA excluido) para el resto de proyectos.
- Que primen el interés general y el bien común de toda la ciudadanía mungiarra.
- Que garanticen el equilibrio territorial del municipio.
- Que no se encuentren ya en marcha o contempladas en el presupuesto ordinario de 2021.
- Que su contenido no sea ilegal, difamatorio o discriminatorio por motivos de género, raza, edad, etc.
- Que afecten a espacios públicos, sin necesidad de conseguir permisos de las propietarias y los propietarios de los espacios.

# Andra Mari kalea, oinezkoentzako gune zabala





Mungiako Udalak ‘Andra Mari kalea oinezkoentzat bihurtzea’ proiektua burutu dau, 2019ko Aurrekontu Parte-hartzaileetan mungiarrok aukeratuta. Ekimen osoak 40.000€ko aurrekontua dauka.

Orain, Andra Mari kaleko garajerako sarbidea Jon XXIII Plazaren arrapala barritik egiten da. Horretara, bermatu egiten jake oinezkoei uriguneko gune nagusietako mugikortasun errazago eta erosoago egin ahal izatea.

Proiektuaren bidez, Matxin Plazak, Foruen Enparantzak, Andra Mari kaleak eta Torrebillela parkeak osotutako oinezkoentzako gune zabala eratu da.

El Ayuntamiento de Mungia ha llevado a cabo los trabajos de la ‘Peatonalización de la calle Andra Mari’, proyecto que fue elegido por las y los mungiarras en los Presupuestos Participativos de 2019.

# Errokodromo barria Bentades aterpean

Eskalada gogoko daben zaletuek guztiz barriztatutako errokodromoaz gozatu ahal izango dabe Bentades aterpean, euren kirola gustura praktikatzeko. ‘Bentades aterpeko errokodromoa konpontzea’ proiektua 2019ko Aurrekontu Parte-hartzaileetan puntu gehien izan zituan egitasmoetako bat da; berorren inbertsioa, barriz, 50.000€-koa izan da.

Neurriak honeek dira: 8m-ko altuerea, 10,50m-ko zabalerea eta 100m2-ko azalerea. Horren ganera, errokodromoak 8 segurtasun-puntu ditu, beraz, 8 pertsona egon ahalko dira, aldi berean, eskalada egiten.





Espazio barriak *boulder* diseinudun egitura dauka, Abedul taula fenoliko eta kontratxapatu eran fabrikatuta.

Las vecinas y vecinos con afición a la escalada cuentan con un rocódromo totalmente reformado para practicar su deporte favorito, ubicado en la galería de Bentades. Una nueva instalación que da respuesta a su demanda a través del proyecto ‘Reparación del rocódromo de la galería Bentades’, elegido por las y los mungiarras en los Presupuestos Participativos de 2019, y que cuenta con una inversión de 50.000€.

# EUSKARALDIA: Euskera gehiago, gehiagotan, gehiagogaz






Euskaraldiaren aurkezpen ekitaldian Talde Eragileko ordezkariak, MAE elkarteko kideak, "Kanka" dantza-taldeak eta "TOC" rock taldeak hartu eben parte.

El 11 de septiembre se hizo la presentación en Andra Mari de la nueva edición de Euskaraldia que se celebrará entre el 20 de noviembre y el 4 de diciembre. La edición de este año se prolongará durante 15 días.

Zemendiaren 20tik abenduaren 4ra egingo dan Euskaraldi honen aurkezpena irailaren 11n egin zan Andra Mari gunean. Osasun-larrialdiak baldintza zorrotzak ezarri arren, hainbat herritar batu ziran aurtengo Euskaraldiak ekarriko deuskunaren barri izan eta parte hartzeko prest.

"Kanka" dantza taldeak eta "TOC" rock taldeak girotutako ekitaldi horretan, Talde Eragileko ordezkari bik eta MAE Taldeko antzezleek aurtengo edizinoak izango dituan ezaugarriak eta barrikuntzak azaldu ebezan. Izan bere, aurtengoa 15 egunekoa izango da, ez hamaikakoa, eta betiko moduan Ahobizi eta Belarriprest moduan emon ahal izango dabe izena herritarrek, irailaren 21etik gora. Bai, bai, aurten atzera emon behar da izena, txapa barriak bananduko dira eta. Parte hartzeko baldintza bi baino ez dira behar, betikoak: 16 urtetik gorakoa izatea eta hamabost egun horreetan euskera gehiago, gehiagogaz eta gehiagotan egiteko konpromisoa betetea.

Ganera, aurten entidadeek bere hartu ahal izango dabe parte. Zer dira entidadeak? Erakunde publiko eta pribatuak, alkarteak, enpresak, dendak, tabernak... Aurkezpen ekitaldian esan ebenez, egun horretarako 40tik gora entidade egozan izena emonda, euron artean, hainbat denda eta zerbitzu, ikastetxeak, udala...

Hamabost egunetako "ariketa" hori antolatzeko, baina, behar asko egin behar da lehenagotik (komunikazino-lanak, txandak lokalean, ekitaldiak antolatzen lagundu...). Behar hori Mungiako Talde Eragileak eta inguruan dagozan boluntarioek egingo dabe. Ekitadian esan zanez, Talde Eragilea irekia da, edonork hartu lei parte eta norberak gura dauen konpromiso-maila hartuta.

Beraz, parte hartzeko aukera asko dagoz, emon izena. Koronabirusa gorabehera, aurten Euskaraldiak batu gaitu!

# Euskeraz erosteak saria euki dau udagoienean

Irailaren 7tik zemendiaren 8ra bitartean herriko denda, zerbitzu eta tabernetan (egitasmoagaz bat egiten dabenetan) euskeraz eskatu ezkero, sariak irabazteko aukerea egon da.

Zozketa bi egin dira: bata, urriaren 20an eta bestea, zemendiaren 17an. Zozketa horreetan iphone-a, Olaldeko euskerazko ikuskizunetarako sarrerak eta herrian gastatzeko erosketa-bonoak banandu dira.

Erosketak egitea, lagunakaz batzea zeozer hartzeko edo zerbitzu-lokal batera sartzea gure eguneroko bizitzaren parte dira. Eta eguneroko diranez, aukera aparta eskaintzen deskue hizkuntza baten edo bestearen aldeko apustua egiten hasteko edota jarraitzeko.

Mungiako merkatari eta ostalari asko prest dagoz, orain bezerooi tokatzen jaku; izan bere, kasu gehienetan lehenengo berbea aukeratzea baino ez da izaten. Horixe erraztuteko sortu da ekimen hau: Euskeraz erosteak saria dauka.

Eskerrik asko, ekimen honetan parte hartzeagaitik, eta zorionak sarituei!

# Enpresen arteko hartu-emonak euskeraz

Zezeilaren 24an jarri zan web-orrian Mungiako enpresen arteko hartu-emonak euskeraz bideratzeko enpresa-zerrenda edo direktorioa.

Direktorio horren helburua gure enpresetan dagozan euskaldunen arteko hartu-emonak euskeraz egitea da. Izan bere, beste arlo askotan gertatzen jakun lez, euretako asko eta asko euskaldunak diran arren, sarri askotan hartu-emonak erderaz izaten dira, inertzia hutsez edo aurrean dagoana erdalduna dalakoan.

Direktorioa egiteko proiektua iazko zemendiaren 14an egin zan jardunaldian batutako enpresek proposatu eben. Batzar haretan pausu txikiak egiten hastea proposatu zan (direktorioa, iaz egindako azterlana zabaldu…) eta Euskaraldiaren barri emon jaken bertan batu ziran enpresei, enpresek parte hartze aktiboa izango dabe-eta aurtengo Euskaraldian.

Hasikerako zerrenda horretan 11 enpresaren datuak agertu ziran, baina zerrenda irekia da eta gura daben enpresa guztiek hartu leie parte. Izena emon gura daben enpresek helbide honetara bialdu beharko dabez euren datuak: euskera@mungia.eus.

# Olentzeroren etxea teknologiaz blai



Udal gobernu taldeko eta Jata-Ondo alkarteko kideak Landetxo Goikoan.

Gure baserri magiko kutuna, Landetxo Goikoa, gaur egun Olentzeroren Etxea-Izenaduba Basoa, teknologia-elementu barriez atonduta jatorku. Bizkaiko baserririk zaharrena eta herrian daukagun eraikin arkitektoniko preziatuak euskal kulturearen eta mitologiaren hastapenetan murgiltzeko aukera emoten deusku. Ume zein nagusi, danek gozatzen dabe Landetxo Goikoa baserriak eskaintzen dauan parke mitologikoaz.

Lehen bere xarmangiarra izan da, eta gaur egun, ezarri diran baliabide teknologiko barriei esker, Olentzeroren etxeak lituratuta itxiko dauz bertaratzen diran guztiak. Elementu barri honeek topa geinkez, kasurako: 4D-ko simulagailua, Landetxo baserriaren eta gune magikoaren nondik norakoak ikusteko “errealitate areagotua” teknologia eta pertsonaia mitologikoen 2D joko interaktibo barriak.

**UDAN BISITA GIDATUAK “ERREALITATE AREAGOTUAZ”**

Jata-Ondo alkarteagaz batera, garagarrilean, abuztuan eta irailean, emaitza ezin hobea izan eben bisita gidatuak antolatu genduzan. Bertaratutakoek baserri inguruko ibilbidea egin ahal izan eben eta errealitate areagotuan oinarritutako teknologia barritzaileaz gozatu.

En esta nueva temporada, Olentzeroren Etxea-Izenaduba Basoa viene con nuevas tecnologías para el deleite de pequeñas, pequeños y mayores de un parque mitológico renovado. Un simulador 4D, tecnología de realidad aumentada y nuevos juegos 2D interactivos son las novedades a destacar.

# Nuevas reformas en Uriguen Haurreskola

## Uriguen Haurreskolan hobekuntza-lan gehiago egin dira

Haurreskolako birgaikuntzan nabarmentzekoak dira teilatuaren barritze integrala, fatxada saneatzea eta pintatzea eta sarrerako barandea pintatzea. Horren ganera, kanpoko arotzeria bere aldatu da.

El curso ha arrancado con novedades en relación al equipamiento de Uriguen Haurreskola. Con el propósito de priorizar el bienestar y seguridad de las y los más txikis, se ha completado el proyecto de mejora del centro educativo municipal con nuevas reformas, correspondientes a la tercera fase.

La rehabilitación de la Haurreskola ha contado con varias intervenciones significativas:



**Reforma de la cubierta:** se ha llevado a cabo la sustitución integral de la cubierta de teja. La actuación también incluye nuevas salidas de ventilación que optimizarán el consumo energético, reforma de chimeneas y sustitución de canalones y remates.





**Fachada:** en esta fase se ha aprovechado para sanear y pintar la fachada. También se ha pintado la barandilla de la entrada, con el fin de hacerla más atractiva. Por otra parte, se ha sustituido toda la carpintería exterior de madera.

# Exhumación de los nichos correspondientes a los bloques nº2 y nº3 del cementerio municipal de Markaida

Debido a la necesidad de disponer de nichos libres en el cementerio de Markaida, en el mes de enero del año en curso, desde el Ayuntamiento de Mungia se inició la tramitación de los expedientes de caducidad de los nichos de los bloques n°3 y n°4 del cementerio municipal de Markaida.

Una vez publicada la notificación en el Boletín Oficial de Bizkaia, se notificó la resolución a todas las partes afectadas mediante correo certificado para que trasladasen al Ayuntamiento sus voluntades, hacerse cargo de restos o renunciar a ellos.

Mediante este aviso, queremos poner en conocimiento de las vecinas y vecinos afectados que no han conseguido recibir notificación, que dispondrán de un mes más a partir de la publicación de esta revista, para poder pasar por la oficina HAZ-SAC (arcos del Ayuntamiento) a trasladar sus voluntades.

# Bide-konponketak gure auzoetan

Mungiako auzoen eta auzokoen beharrizanetara egokitzen jarraitzen dogu, lanean eta ahalegina egiten gure auzoak hobetzeko. Mantentze-lanei garrantzi handia emoten deutsegu. Kasu honetan, bide-zuloak konpontzen segiduten dogu, garrantzitsua da-eta herribideak egoera onean egotea eta ibilgailuak arazo barik mugitu ahal izatea. Bideak hobetzeko 226.825€-ko inbertsioa egin da.

Aurten Berreagamendin, Emerandon eta Markaidan egin dira lanok. Orain, helburua, urtea bukatu baino lehen “Lorentzo bidea” eta “Atxuri bidea” asfaltatzea da.



Emerando






Berreagamendi





Markaida

# Reparación de carreteras en nuestros barrios

Seguimos adecuándonos a las necesidades de nuestras vecinas y vecinos, trabajando, con el objetivo de mejorar nuestros barrios. Por ello, damos un valor significativo a los trabajos de mantenimiento. Seguimos arreglando carreteras y caminos vecinales porque es importante que estén en buenas condiciones y que los vehículos puedan circular sin problemas. Estos trabajos han contado con un presupuesto de 226.825€.

Este año se ha actuado en los barrios Berreagamendi, Emerando y Markaida. El próximo objetivo antes de que acabe el año será asfaltar “Lorentzo bidea” y “Atxuri bidea”.

# Eskola agenda 21-i jarraipena emotea

Mungiako Udala osatzen dogunok Larrialdi Klimatikoaren adierazpen instituzionala onartu genduan 2019ko Osoko Bilkurako irailean. Funtsezko eginbeharra dogu prestakuntzan, heziketan eta informazinoan, bai emisinoak nahitanahiez murrizteko, baita beroketa globalaren ondorioetara egokitzeko bere.

Egoera horregaz bat eginda eta gure herriko ikastetxe desbardinakaz alkarlanean, hona hemen gure ekarpenak:

## MUNGIAKO ESKOLA AGENDA 21

**Ingurumenaren gaian daukaguzan kezkek eta gizakion ekintzek sortzen daben inpaktua murrizteko nahiak bultzatuta sortu zan Agenda 21**

Eskola Agenda 21 es un programa educativo que tiene como fin impulsar la sostenibilidad y calidad en la comunidad educativa de los centros escolares. Un plan de acción y metodología de trabajo que permitirá al alumnado seguir trabajando y avanzando por el conocimiento, capacidad, actitud, motivación y compromiso para participar en la solución de los problemas del medio ambiente.

Horren harira, Eskola agenda 21 ikastetxearen iraunkortasunerako eta kalidaderako hezkuntza-programa bat da. Ingurumen-hezkuntza programa bat danez, ingurumen-arazoen konponbidean parte hartzeko ezaguera, gaitasuna, jarrera, motibazioa eta konpromisoa garatzea da helburu nagusia.

2019-2020 ikasturtean, Mungiako lau ikastetxek (Bentades Ikastetxea, IES Mungia BHI, Larramendi Ikastola, Laukarizko Eskola) Eskolako Agenda 21ean gogotsu jardun eben lanean, bai zentroan, bai udalerriko beste esparruetan.



Ikasturte honetan plastikoen gaiari ekingo deutsagu barriro.

2019-2020 ikasturtean Eskola Agenda 21 programaren barruan Mungiako Udalean, besteak beste, Oinez Busa-Auto Bako eguna, Zuhaitz Eguna, Txorien eraztunketa-jardunaldia, herri diagnostikoa, "Itsaminez" txotxongilo-ikuskizuna, harrapariei buruzko tailerrak eta beira tailerrak antolatu genduzan.

## ESKOLA AGENDA 2030 BARRIA

2020-2021 ikasturteari begira, danon erronka da merezidu dauen jarraipena emotea orain arte Mungiako Eskola Agenda 21ean egindako ahalegin eta lan txukunari. Urte batzuk dauzkan bideak itxura hartu daiala.

Horregaitik, irailean batu ostean, lehenengo pausoa plangintza bateratua osatzea izan da; hau da, EAG21 proiektua egituratzen jarraituko dogu, baina, aldi berean, agenda barrira egokitzen bere joango gara.

Ikasturte honetan landuko danari jagokonez, plastikoen gaiari ekitea proposatu zan ingurugelan burututako batzarretan.

En el curso 2020-2021, el primer paso ha sido reunirse en septiembre para completar la planificación unificada. Seguiremos con la estructura del proyecto EAG21, pero, al mismo tiempo, empezaremos a adecuarnos a la nueva agenda (Eskola Agenda 2030).

En cuanto al tema a desarrollar en este curso, en las reuniones mantenidas en el aula de medio ambiente se propuso seguir con el tema de los plásticos.

# Herri diagnostikoa: STOP plastikoak


Bentades ikastetxeko ikasleak (alarma egoera dekretatu baino lehenago)

Herri Diagnostikoari jagokonez, ibilbide ugari egin dira herrian zehar, hain zuzen bere, plastikoak eta zaborra batzeko eta sailkatzeko helburuagaz. Horretarako erabilitako metodologia hau izan da: leku jakin batzuetan metro karratuko pilatutako zaborrak gaika bildu, sailkatu eta pisatu.

Horren ganera, herritarrei galdetegi batzuk egin jakez, hondakinen problematikari buruz eta herriko inguruetan dagoan hondakinen itxikeriari buruz.

Horren ostean, lanaren emaitzak aztertu dira atal desbardin bitan banatuta: alde batetik, ibilbideetan jasotako eta sailkatutako hondakinak eta, bestetik, jendeari egindako galdetegiak.

Hori gitxi ez eta Mungiako ikasleek hainbat galdera egin deutseez herritarrei gai honen ganean.

Herritarren eretxian, plastikoakaz dogun arazoaren arrazoi nagusiak horren gehiegizko kontsumoa eta itxikeria dira.


Laukarizko Eskolako ikasleak (alarma egoera dekretatu baino lehenago)

Respecto al diagnóstico popular, hemos realizado varios recorridos por el municipio con el objetivo de recoger y clasificar plásticos y basura en general. Además, se ha elaborado un cuestionario sobre la problemática de los residuos y la dejadez manifestada respecto a los residuos en los alrededores del municipio.

**Bentades Ikastetxeko eta Larramendi ikastolako** LH eta DBHko ordezkariakaz batera, Torrebillela parkean eta inguruetan bildu genduzan hondakinak. Egun bian 143 objektu jaso eta sailkatu genduzan.

Jasotako objektuen artean, honeek izan dira ugarienak: boltsak, tapoiak, gozoki-boltsak, lastotxoak, janarien ontziak, brick ontziak, edarien metalezko latak, plastiko-pieza txikiak eta zigarro-puntak.


Larramendi ikastolako ikasleak (alarma egoera dekretatu baino lehenago)


IES Mungia BHIko ikasleak (alarma egoera dekretatu baino lehenago)

Bestalde, **IES Mungia BHI eta Laukarizko Eskola**ko ordezkariakaz batera, Uriguen parkerantza doan beste ibilbide bat aztertu genduan. 10 puntu karratuko distantzian 251 objektu jaso eta sailkatu genduzan.

Jasotako objektuen artean, ugarienak honeexek: gozoki-boltsak, mikroplastikoak, plastiko-pieza txikiak eta handiak, zigarro-puntak eta tapoiak.

# Multiaktibitatea ikastaroa Udal Kiroldegian, sasoi-sasoian egoteko




Estamos trabajando con el objetivo de ofrecer servicios deportivos con total seguridad, así, para este ejercicio 2020-2021,hemos organizado el cursillo de Multiactividad.

Osasun Sailak ezarritako segurtasun-neurriei jarraituta, lanean gabilz kirol zerbitzuak segurtasun osoz eskaintzeko. Hori holan dala, hainbat modalidade batzen dauzen Multiaktibitatea ikastaroa jarri dogu abian 2020-2021 ikasturterako.

Ikastaro hori hiru bloketan dago sailkatuta eta bakotxak intentsidade-maila desbardina eukiko dau.

- Osasuna (1 intentsitatea): hipopresiboak, pilatesa eta kore-a.
- Mantentzea (2 intentsitatea): aquagyma, zikloa, entrenamendu funtzionala eta kore-a.
- Kirola (3 intentsitatea): zoomba/aerobic-a, hiit, zikloa eta entrenamendu funtzionala.

Multikirolean murgildu gura dabenek astelehenetik barikura egiteko aukera izango dabe, ordutegi malguan beti bere. Hori bai, erreserbak astero egin behar dira, ikasturte osoan burubelarri ibilteko aukerea dagoen arren. Erabiltzaileak hilez hile baja eskatzeko aukera izango dau, tramitazinoetarako aurretiazko zazpi eguneko epea errespetatuta.

Multiaktibitatea ikastaroaren ganeko informazinoa eskura izateko, hona hemen Udal Kiroldegiaren telefono zenbakia 94.674.34.12; edo, ezpabere, idatzi kiroldegia@mungia.eus helbidera.

# Elitea Mungiako Urrezko Pala Pro txapelketan

Martiaren 13an emon behar izan jakon hasiera Urrezko Pala Pro txapelketari, baina, Covid-19ak eragindako osasun-krisiaren erruz, atzeratu egin behar izan zan. Hori dala eta, Palistarik onenak batzen dauzan txapelketa joan dan irailaren 18an hasi zan. Ordurik aurrera, palazaleak frontoian izan dira barikuro, arratsaldeko 19:00etatik Aurrera; eta beti behar diran segurtasun-neurriak errespetatuta.

Parte hartu daben jokalariek diziplinaren egungo elitea osatzen dabe: Pablo Fusto, Ibon Garate, Esteban Gaubeka, Iker Gordon, Xabier Ibargarai, Dan Necol, Ibai Perez eta Iñaki Urrutia.



Esteban Gaubekak eta Xabier Ibargaraik irabazi eben txapelketea, Ibai Perezen eta Ibon Garateren kontra. Sari-banaketan, besteak beste, honeek egon ziran: Ager Izagirre, Mungiako alkatea eta Lorea Bilbao, Bizkaiko Foru Aldundiako Euskera, Kirola eta Kultura sailen foru diputatua.

El Campeonato Urrezko Pala Pro que comenzó el 18 de septiembre ha reunido a la élite de la pala como Pablo Fusto, Ibon Garate, Esteban Gaubeka, Iker Gordon, Xabier Ibargarai, Dan Necol, Ibai Perez e Iñaki Urrutia.

# MSK Hockey Mungia, nesken kirol-ahalduntzea sustatzen

MSK Hockey Mungia nació hace tres años pero durante todo este tiempo ha madurado, se ha hecho mayor y tiene identidad propia. La asociación se creó con jugadoras y a día de hoy cinco de ellas han tenido la oportunidad de jugar en la Federación Vasca de patinaje.


MSK Hockey Mungiako kirolariak (Covid-19ak eragindako alarma-egoerea baino lehenago ateratako argazkia).

Hiru urte igaro dira MSK Hockey Mungia alkartea sortu zanetik. Denbora honetan Malen Skate Klubaren baitan sortutako alkartea nagusi egin da eta, gaur egun, nortasun propioa dauka. Jokalariak andrazkoak dira, ezaugarri horregaz sortu zan eta kirolaren munduak bizi izan dauen emakumezkoen ahalduntzeak asko markartu dau bere ibilbidea.

Une honetan, alkarteko jokalarien % 71 emakumez osatuta dago eta % 29, barriz, gizonezkoak dira.

MSK taldeko bost jokalarik izan dabe 2019-2020 denboraldian Euskal Herriko Irristaketa Federazioan jokatzeko aukerea. 2005ean jaiotako atezain bik eta hiru jokalarik, hain zuzen bere. Hor beste talde batzuetako neskakaz entrenatzen dabe eta euren arteko hartu-emonak sendotzeko erea daukie.

Urtean zehar Euskal Herriko Irristaketa Federazioak kontrol saioak antolatzen ditu, urrian hasita hamabosterik behin batzen dira, domeka goiz edo arratsaldeetan.

Alkartearen helburua herriko gazteak erakartzen jarraitzea da; izan bere, eskola kirolaren alorrean, domeketan Larretako Frontoian antolatzen dabezan saioetako bat, ardatz biko patinetan ibiltea da. Ez daukanari materiala itxi egiten jako eta lehenengo lau saioak doakoak dira.

# MUGIMENT KIROL TXARTELA Mungian




Mungia se suma a la tarjeta única MUGIMENT KIROL TXARTELA para el uso de instalaciones deportivas de otros municipios adheridos al programa.

MUGIMENT Kirol Txartela martxan da Mungian. Horren bidez, kirol-instalazinoak erabili ahal izateko "txartel bakarra" erabilteko erea eskaintzen jake herritarrei; honetan, Mungiak bat egin dau 2017an hasi zan ekimenagaz.

Helburua udalerri gehiagok ekimenagaz bat egitea eta datozen urte bietan kirol-txartel bateratu hau euskal udalerri guztietara zabaltzea da. Proiektu horregaz, beste pausu bat egingo dogu Aurrera, Euskadi osoan kirolari bultzada emateko eta, holan, jarduera fisikoa eta osasuna sustatzeko.

Txartela doakoa da eta birtuala.

mugiment kiroltxartela app-a instalatu baino ez da egin behar!

App-a Google Play eta App Storen dago eskuragai.

Informazino gehiago: 94.615.34.12 / kiroldegia@mungia.eus

# OLALDE ARETOA
# Leku segurua, kulturaz gozatzeko




Covid-19aren agerraldiak baldintzatu egin dau gure egunerokoa, baita kultura bera bere. Osasun mailako alarma-egoerea hasi zanean, herriko kultur ekipamenduetako jarduerak eten egin behar izan ziran. Ikasturte barriari begira, etenbako lana izan da Olalde Aretoko kultur egitaraua martxan jartzea eta, horren ganera, erabiltzaileei kulturaz gozatzeko erea eskaintzea; beti bere, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren segurtasun-neurriei jarraituta.

Horretarako, hainbat izan dira hartutako neurriak: aretoaren gune komunak sarri garbitzea eta desinfektatzea; aforo mugatua izatea eta segurtasun-distantzia gordetea; sarrerak internet bidez erosteko gomendatzea, inprimatu beharrik ez izateko. Dana dala, aurrez aurreko salmenta erabilgarri dago, eta orotarako kutxazainetakoa bere bai. Gehienez bere 6 sarrera erosi ahal dira.

Nuestra prioridad es que Olalde Aretoa sea un lugar seguro para el público. Por ello, se han tomado abundantes medidas para que las personas usuarias puedan disfrutar de la oferta cultural.

### ZEMENDIAN ETA ABENDUAN

- **Zemendiak 29:** IZARO: 'Limones en invierno' (kontzertua)
- **Abenduak 19**: MIREN ETA ROBERTO ETXEBARRIA: 'Hamaikatxu kopla…pandero baten konture!' (kontzertua)
- **Abenduak 5**: JARDIN DE LA CROIX & SOFA' (rock kontzertua)
- **Abenduak 20**: ANDONI MARTINEZ BARAÑANO tenorea eta MARIO LERENA pianista (kontzertua)
- **Abenduak 29**: HODEI ETA TOR MAGOAK (magia saioa)
- **Abenduak 30**: GO!AZEN 7.0 (kontzertua)

# La Escuela Municipal de Música y Danza adapta sus métodos de enseñanza

Debido a la crisis sanitaria, durante la situación de confinamiento decretada por el estado de alarma, la Escuela Municipal de Música y Danza ha trabajado en adaptar sus métodos de enseñanza. La implicación del profesorado en la adecuación ha sido fundamental tanto técnica como pedagógicamente, dependiendo de las posibilidades de la alumna o alumno.

En el aspecto técnico, se ha tratado de destacar la búsqueda del mejor software y técnica digital para llevar a cabo la enseñanza musical, siendo esta distinta según el alumnado; y en el pedagógico, se ha adecuado e innovado el modo de impartición de las distintas asignaturas.

### CLASES INDIVIDUALES

Se han propuesto distintas maneras de realizar un seguimiento al alumnado, dependiendo de sus medios técnicos (conexión, equipos informáticos, teléfonos móviles adecuados), ya que no todas las familias tenían las mismas posibilidades.

### CLASES GRUPALES

Hay una amplia variedad de clases grupales y no se han realizado clases online. El profesorado ha dedicado el tiempo en la adecuación de la programación y creación de material para el curso 2020-2021. Además se han enviado vídeos para que el alumnado pueda hacer un seguimiento.

Udal Musika eta Dantza Eskolako irakasleek ikasleen beharrizanetara moldatu ditue irakaskuntza metodoaren izate tekniko zein pedagogikoa.

# Mungia cuenta con nuevos y más contenedores amarillos



Ontzi eta plastikoen bilketa eraginkor eta jasangarriagoa izango da edukiontzi hori barriei esker.

El servicio de recogida de envases y plásticos será más eficiente y sostenible con la instalación de nuevos contenedores amarillos. Se trata de un modelo fabricado con acero al carbono, 100% reciclable y con una vida útil más larga.

El nuevo contenedor amarillo está construido con materiales ignífugos y su peso le confiere una mayor estabilidad. Esto facilitará la recogida de residuos, que será más frecuente y eficiente.

# Ohiko edukiontziak edukiontzi lurperatuen ordez, segurtasuna bermatzeko

Se está llevando a cabo la sustitución de algunos contenedores soterrados con problemas de seguridad por contenedores aéreos, con el fin de garantizar la seguridad viaria y facilitar la maniobra y estacionamiento de los camiones recolectores.

Lurrazpiko edukiontzi batzuk bideko segurtasun-arazoak sortzen dabez, batez bere hondakin-bilketa egiten daben kamioiek maniobra gehiago egin behar dabelako eta trafikoari enbarazu egiten deutselako. Arazo horri konponbidea emoteko, lurrazpiko edukiontzion ordez ohiko edukiontziak jarri dira, esate baterako, Neurketa kalean egozan edukiontzi lurperatuen ordez, ohikoak jarri dira Olalde kaleagaz bat egiten dauan bidegurutzean eta Aurelio Artetxe aparkalekuan. Berteiz kalean bere egin da aldaketa.

# Gure herria jagotea danon ardurea da: erabili etxeetako elektrotresnak, altzariak eta tamainu handiko gauzak batzeko zerbitzua

Abandonar muebles y enseres en la vía pública **supone una infracción grave a la Ordenanza Municipal de Recogida de Residuos , con su correspondiente multa.**

Llama siempre al teléfono gratuito 94.435.57.50 para concertar día, hora y lugar de depósito.

Ezinbestekoa da herritarron laguntza honetan aurrera egiteko. Etxeetako elektrotresnak eta tamaina handiko hondakinak ezin dirala kalean itxi gogorarazoten deutsuegu, izan bere, oinezkoei lesinoak eragin leiez eta, horren ganera, **hondakinak bide publikoan ixteak Hondar-Bilketako Udal-Ordenantzaren arau-hauste larria dakar eta, beraz, jagokon isuna jarriko da.**





Hondakinak bide publikoan itxita, bilketa zerbitzuagaz adostu barik.

Holango tresnak batzeko modu zuzena **94.435.57.50** doako telefonora deitzea da, eta eurakaz zehaztea batzeko eguna, ordua eta lekua. Tamaina handiko hondakinak astelehen eta eguaztenetan, 20:00etatik 22:00etara itxi behar dira errefusarako edukiontziaren ondoan. Bilketak martitzen eta eguen goizetan egiten dira.

# Jagon zeure burua eta geu bere jagon

## Cuídate, cuídanos

**Danon ardurea da Covid-19-aren hedapenari aurre egitea**

Prevenir la propagación de la Covid-19 es responsabilidad de todas y todos

**COVID-19**
**Alarma-egoera** Estado de alarma

MUNGIA UDALA

**Segurtasun-neurriak**
Medidas de seguridad

**Babestu zeu eta ingurukoak**
Protégete a ti y a las demás personas

**Segurtasun-distantzia gorde**
Mantén la distancia de seguridad

**Gehienez bere 6 laguneko taldeak**
Máximo 6 personas por grupo

**Udalerriko pertsonen sarrera-irteera mugatuta**
Limitación entrada/salida de personas de cada término municipal

**Etxeratze-agindua: 22:00-06:00**
Toque de queda: 22:00-06:00

2 m ← → 2 m

**Erretea eta inhalazino-gailuak erabiltea**
Fumar y uso de dispositivos de inhalación

Mungin geure ikurrek

MUNGIA UDALA

**ARGITARATZAILEA:**
MUNGIAKO UDALA: Trobika, 1 / 48100 Mungia <Bizkaia>
Tel. 94 674 12 16 / komunikazioa@mungia.eus / www.mungia.eus
**ALE KOPURUA:** 7.000
**LEGE GORDAILUA:** BI•2224/2012

Mungin geure ikurrek